

AVISO / OHARRA

UDALAK 9 LANPOSTU ESKAINIKO DITU 2019KO ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAREN BARRUAN

IZENA EMATEKO EPEAK

Honako hauek dira bete beharreko lanpostuak:

- **8 langile**, bost hilabeteko kontratuarekin eta eguneko 5 ordu eta hogeita hamar minutuko lanaldiarekin, astelehenetik ostiralera.
Egin beharreko lanen artean udal-azpiegituren mantentze-lanak nabarmendu daitezke.
Zortzi lanpostu horietako zazpirako ez da lan-esperientziarik behar, eta okupazio-kodea honakoa da: **96011029**.
Gainerako lanpostua arduradun-lanetarako izango da. Horretarako, **igeltserotzako lehen mailako ofizial** titulazioa eskatuko da, gutxienez bi urteko esperientziarekin. Okupazio-kodea honakoa da: **72211015**.
- **Administrazio-laguntzaile bat**, hiru hilabeteko kontratuarekin eta eguneko 3 orduko lanaldiarekin, astelehenetik ostiralera. Gutxienez urtebeteko lan-esperientzia eskatuko da, eta okupazio kodea **43091029** da.

Eskualdeko Enplegu Planaren prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak **Lanbideren webgunearen bitartez eman beharko dute izena** (www.lanbide.euskadi.eus), **irailaren 16tik 30era bitartean**.

Lanpostuak betetzeko Gueñesko Kontzejuan bizi diren 9 langabe kontratatuko dira. Udalak 86.648,56 euroko diru-laguntza jaso du LANBIDEREN eskutik, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen testuinguruan.

Hautaketa-prozesuari dagokionez, LANBIDEK ezarritako irizpideei jarraituko zaie, eta lehentasuna emango zaie gizarte-behar handiena duten eta lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Hori dela eta, kontratatutako pertsonetatik gutxienez % 40 emakumeak izango dira, % 30 DSBEn titularrak eta % 15 55 urtetik gorako pertsonak.